



Urretxuko udala

## **MINERAL ASTERAKO BEGIRALEAK AUKERATZEKO OINARRIAK /2020**

Urretxuko Udalak 5 begirale kontratatu behar ditu Mineralogia eta Paleontologia Astean antolatutako haur ekintzetarako.

### **1.- HAUR EKINTZETARAKO BEGIRALEAK eta FRONTOIAN ARRETAKO LANGILEAK**

#### Betebeharreko baldintzak:

- 1.- Gutxieneko adina: 18 urte
- 2.- Gutxieneko formazio maila: DBHn graduatua.
- 3.- Aisialdiko begirale titulua.
- 4.- Euskara: B2 maila egiaztatzea.
- 5.- Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa aurkeztea (Adingabeen Babes Juridikoaren 1/1996 Lege Organikoa, 26/2015 eta 45/2015 Legeek aldatua).
- 6.- Erabat libre egon behar da aurreikusitako egun eta ordutegian

#### Baloratzea:

- 1.- Haur ekintzetan egiaztatutako eskarmentua.
- 2.- Langabezian egotea.
- 3.- Urretxun erroldatuta egotea.

### **NOLA BALORATUKO DA:**

#### 1.- Haur ekintzetan egiaztatutako eskarmentua.

Begirale lanetan eguneko 0.05 puntu, eta gehienez 3 punturekin baloratuko da.

Eskarmentua egiaztatu behar da "**bizitza laboralaren**" bidez edota **lan-kontratuak** aurkeztuz. Ez da baloratuko egiaztatzen ez den eskarmentua.

Urretxuko Udalean egindako lanak ez dira egiaztatuko, baina kontutan hartzeko eskaera orrian adierazi behar dira.

#### 2.- Langabezian egotea.

Puntu batekin baloratuko da langabezian egotea,

Baloratu ahal izateko "**Izen ematearen aldiei buruzko txostena**" aurkeztu beharko da.

#### 3.- Urretxun erroldatuta egotea.

Puntu batekin baloratuko da.

Kontuan hartu ahal izateko errolda 2020ko irailaren 30a baino lehenagokoa behar da izan.

Baldintza hau Udalak berak egiaztatuko du.

Deialdian aurkeztutako izangaiekin barematuko dira baldintzak eta hurrenkeraren arabera lehendabiziko 5 izangaia izango dira aukeratuak. Baldintzak betetzen dituzten gainontzeko izangaiek erreserban geratuko dira sortzen diren beharrak betetzeko.

Berdinketa izanez gero, Urretxun erroldatutakoek izango dute lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, lan eskarmentuak aginduko du, eta hala ere berdinketak jarraitzen badu, zozketa egingo da.

Lana azaroaren 6an, 7an eta 8an izango da, goizez eta arratsaldez. Halaber, trebakuntzarako ikastaro bat egingo da. Aukeratutakoek derrigorrez egin beharko dute ikastaroa.